AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5412

1644/2011 EBAZPENA, urriaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Juan Antonio Guajardo Remacha jaunak, berak hala eskatuta, Zumarragako Ospitaleko zuzendari gerente kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 16ko 3370/2009 Ebazpenaren bitartez, Juan Antonio Guajardo Remacha jauna Zumarragako Ospitaleko zuzendari gerente izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, Zuzendaritza Nagusi honek ondokoa

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Juan Antonio Guajardo Remacha jauna Zumarragako Ospitaleko zuzendari gerente kargutik kentzea, berak hala eskatuta, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko urriaren 11tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesatuari eta Santiago Ospitaleari eta Zumarragako Ospitaleari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 11.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.